


**“Nire ibilbide profesionalaren lehen urratsak emateko, Lantegi Batuak-en praktikak egitea aukeratzen dut”**

## XI. Beka Deialdia Desgaitasuna duten Ikasleentzat: PRAKTIKAK LANTEGI BATUAK-en



### Nahitaezkoa:

- > %33ko edo gehiagoko desgaitasun-ziurtagiria.
- > UPV/EHuko Graduko azken mailako, Master ofizial edo berezko Masterreko ikaslea izatea.
- > Unibertsitate titulua lortzeko beharrezkoak diren kredituen %50a gainditua izatea gutxienez izen-emate epea amaitzerakoan.

LANTEGI BATUAK irabazi asmorik gabeko fundazio bat da, eta desgaitasunen bat duten pertsonentzat lan-aukerak sortzea du helburu.

Horregatik, UPV/EHU-ko Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuarekin batera beka deialdi bat argitaratu da desgaitasunen bat duten ikasleen enplegarritasun aukerak gehitzeko, LANTEGI BATUAK-en lantegiren batean 6 hilabeteko praktikak eginez.

### Nola?

Beka eskatu ahal izateko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- LANTEGI BATUAK-en eskabide-inprimakia. (Jaitsi daiteke Lantegi Batuak-en webgunetik: <https://www.lantegibatuak.eu/wp-content/uploads/2022/04/220426ImpresoSolicitud-WEB-2.pdf>).
- I. eranskina. Kanpoko praktikak egin ahal izateko Zentroaren baldintzak betetzen direla bermatzen duen dokumentua (Praktiken Unibertsitateko Zentroaren arduradunak sinatuta).  
(Jaitsi daiteke UPV/EHU-aren webgunetik: [ehu.eu/web/discapacidad/lantegi-batuak-en-praktikak-egiteko-beka](http://ehu.eu/web/discapacidad/lantegi-batuak-en-praktikak-egiteko-beka)).

### Noiz?

- 2024ko azaroaren 1etik abenduaren 15era bitartean: eskabideen aurkezpena.
- 2024ko abenduaren 16tik 2025eko urtarrilaren 15era bitartean: aurrez hautaturiko hautagaiei elkarrizketak.
- 2025eko otsailaren 3tik uztailaren 31ra bitartean: praktikak egitea.

### Zenbat?

Ikasle bakoitzarentzat praktikak egiteko esleitutako diru kopurua hilean 800€koa izango da.

(Praktika ez baldin bada lanaldi osokoa, dagokion parte proportzionala emango da).



Eskabideak 2024ko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Enplegarritasunean Laguntzeko BBK Zerbitzuan, Goietxa Bidea, 18 – 48150 Ola-Sondika.  
Alicia Garcia zuzenduta: [aliciagarcia@lantegibatuak.eu](mailto:aliciagarcia@lantegibatuak.eu)

Informazio gehiago eskatzeko:

Ezgaitasunak dituzten  
Pertsonentzako Zerbitzuan

☎ 94 601 22 58 [ehu.eu/discapacidad](http://ehu.eu/discapacidad)